

VILLAMANCA

– ARABA / ÁLAVA –

Arkamu mendilerroaren iparreko magalean dago Villamanca herritxoa, Marinda gainaren aurrez aurre, 671 metrora gutxi gorabehera. Gibijo eta Arkamu mendilerroak bereizten dituen ibar txikian ditu lantzeko lurak Villamancak. Kuartango udalerriko herria da, Añana kuadrillakoa, eta Gasteiz 25 kilometrora dago.

Inguruan diren aztarna arkeologiko batzuek ez ezik –Urbina Basabeko hilarria, kasurako–, toponimiak ere erromatarren asentamenduak izan zirela ematen du aditzera: Aprikano, Jokano, Sendadiano eta Katadiano. Batzuen iritziz, Villamanca izenak berak ere, erromatarren “villa” eta bertako lurren ustiapena dakar gogora. Urbina Basabe, Marinda, Iñurrita eta Santa Eulalia inguruko herrixkekin batera, Villamancak Marindako Ledania osatzen zuen; Beheko Ledania ere esan izan zioten.

1257. urteko agirietan *Villa Manca* dator jasota. Gil lizentziatuak 1556. urtean dioenez, parrokiari ordaintzen zioten onuradun oso bat eta bi erdi, eta baseliza biren berri ere jasotzen du: San Sebastian eta San Adrian baselizak, gaur egun galduak. Martín Gilek bertara bisitaldia egin zuenean, hamar lagun bizi omen ziren Villamancan. Erdira murriztuz biztanleria mendearen amaieran, izurritea zabaldu baitzen Kuartangon. Hortaz, 1590eko sutondo edo etheen erroldan, herrian “lau auzokide eta bi alargun” bizi omen ziren. Gaur egun, hamar lagun daude erroldatuta Villamancan.

El pequeño pueblo de Villamanca se sitúa al abrigo de la ladera norte de la sierra de Arkamo, frente al emblemático pico de Marinda, a una altitud media de 671 m. Sus tierras de cultivo se encuentran en el pequeño valle que separa las sierras de Gibijo y Arkamo. La localidad pertenece al municipio de Kuartango, cuadrilla de Añana, y se localiza a una distancia aproximada de 25 km de Vitoria-Gasteiz.

Además de diferentes restos arqueológicos en sus cercanías –como la lápida funeraria de Urbina de Basabe–, la toponimia permite señalar posibles asentamientos romanos en Kuartango: Aprikano, Jokano, Sendadiano y Katadiano. También el topónimo Villamanca parece recordar, según algunos autores, la existencia de una “villa” romana en este lugar y la explotación de las tierras anejas a ella. Por otra parte, junto con las cercanas aldeas de Urbina de Basabe, Marinda, Iñurrita y Santa Eulalia, Villamanca formaba parte de la Ledanía de Marinda, llamada también Ledanía de Abajo.

Aparece documentado en 1257 con el nombre de *Villa Manca*. El licenciado Gil dice, en 1556, que servían a su parroquia un beneficiado entero y dos medios, registrando también la existencia de dos ermitas: San Sebastián y San Adrián, desaparecidas en la actualidad. En el momento de la visita pastoral de Martín Gil, vivían en Villamanca diez vecinos. Esta población se había reducido a la mitad a finales de siglo, momento en que la peste se extendió por Kuartango. Así, según el censo fogueral de 1590 se hallaban en el pueblo “cuatro vecinos y dos viudas moradoras”. En la actualidad están empadronados diez habitantes.

Santiago eliza / Iglesia de Santiago

ERROLDA URRI HORI OSATUTAKO bizilagunak Arkamu mendilerroarekin paralelo zihoan bidean lerrokatutik bizi ziren. Hiru etxe zeuden eraikita lerro horretan, bai eta gainerako elementuak eta Santiagoren omenez altxatuta parrokia ere, bidearen ezkerretara.

Oinplano angeluzuzeneko eraikina da tenplua; buru arteza eta nabe atal bikoia, manposteriaz eginda. Oraindik

EL REDUCIDÍSIMO CENSO edificatorio de Villamanca se alinea en torno a un camino que discurre paralelo a la sierra de Arkamo. Está constituido por tres casas de vivienda, con sus respectivos cuerpos auxiliares, y la iglesia parroquial dedicada a Santiago, a la izquierda del camino.

El templo es un edificio de planta rectangular, formado por cabecera plana y dos tramos de nave, levantado en

ere jatorrizko elementu erromanikoak ditu gordeta. Handik urte batzuetara, berriztatu egin zuten eraikina; estalki berria jarri eta arkuak eta apeoak moldatu zituzten.

Burualde artezaren erdi-erdian lerro bakun eta garbiko leiho eder bat ageri da. Gezi-leiho estu bat eta kana erdiko hiru arkibolta ditu. Horiei eusten, kapitel lau eta atzapar harroinak dituzten hiru pare zutabe daude.

Presbiterioaren hegoaldeko horman, osatu gabe, leiho erromaniko bat atera da argitara tenpluaren alde hartan itsatsita zegoen sakristia kendutakoan. Erdi-puntuko arku du, bozeldun hiru arkibolta eta eskozia-profileko estalkia. Ezkerreko aldean bistan geratu dira hiru kapitel apaindu: batek gizonezko baten burua du; besteak, emakumezko bat, txano eta kokospeko uhalarekin; eta besteak, munstro fantastiko bat, sugeekin batera.

Leiho horren azpian, sasoi modernoagoan, bao angeluzuzena ireki zuten, eta haren leihoburuan harri bat ber-

mampostería, que aún mantiene algunos elementos románicos originales. La edificación fue reconstruida, posteriormente, en su cubierta y maestrada en sus arcos y apeos.

Presidiendo el exterior de la cabecera recta, en su centro, se abre un bello ventanal de líneas sencillas y puras. Está compuesto por una estrecha saetera y tres arquivoltas de medias cañas que descansan sobre tres parejas de columnas de capiteles lisos y basas con garras.

En el muro sur del presbiterio se encuentra, aunque incompleto, un hermoso ventanal románico que ha quedado al descubierto al derrumbarse la sacristía que se encontraba adosada a este lado del templo. Consta de arco de medio punto, tres arquivoltas de bocel y guardapolvo con perfil de nacela. En el lado izquierdo han quedado a la vista tres capiteles decorados con una cabeza masculina, otra femenina con tocado de barbuquejo y un monstruo fantástico acompañado de serpientes.

Burualdeko leihoa / Ventana de la cabecera





Hegoaldeko leiboa / Ventana sur



*Hegoaldeko leiboa. Kapitelak
Ventana sur. Capiteles*

rerabili zuten; Harri horren apaingarri gisa, gurutze greko bat eta lore bat, zirkuluen barruan sartuta.

Era berean, elizaren barruan, behea egiteko, inskripzio-rik ez zuten hiru hilarri erabili zituzten; harri beltzez egin-dakoak dira, eta zenbait motibo zizelkaturik daude apa-induta. Bataiarria, berriz, obalatua eta handi samarra da; oinarri karratukoa.

Testua eta argazkiak: MPGH

Bajo este ventanal se abrió en época moderna un vano rectangular en cuyo dintel se reutilizó una piedra decorada con una cruz griega y una flor, ambas inscritas en círculos.

También en el interior de la iglesia, y utilizadas como pavimento, se aprovecharon tres losas funerarias sin inscripciones, de piedra negra, y decoradas con diferentes motivos incisos. La pila bautismal, ovalada y de grandes proporciones, apea en basa y pie cuadrados.

Texto y fotos: MPGH

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 476-477; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1995, pp. 851-853, fig. 519-520; RUIZ DE LOIZAGA, S., 1982, pp. 157-158.